



## 1. PARTE-HARTZEARI BURUZ

**1.1.** Basauri Asian Dance Contest 2025 lehiaketa, aurrez aurre, **abenduaren 13an (larunbata)** egingo da, 18:30etik aurrera, Ibaigane Kultur Etxeko areto nagusian.

**1.2.** Parte hartzeko gutxieneko adina 12 urte da, eta gehienezkoa 35. **16 urtetik beherakoek** legezko tutorearen baimena aurkeztu beharko dute (ikusi baimen-eredua oinarrien amaieran).

**1.3.** Gehienez **70 parte-hartzaile** izango dira **bakarlari eta taldekakoen artean**, eta bestetik, goitik jota 10 banakako eta 10 talde egongo dira.

Plazak beteta, bi itxaron-zerrenda sortuko dira: lehena, 5 talderentzat, eta bestea, 5 bakarlariarentzat, erreserba gisa, talde edo bakarlariaren bat erretiratzen bada.

Garrantzitsua:

- Pertsona bera ezin izango da bi kategorietan aurkeztu.
- Bakarlari kategorian ezin da backdancer-ik erabili, ezta beste pertsonarik emanaldi bitartean.
- Taldearen osaera ezin da aldatu, ez bada justifikatutako arrazoiengatik, eta horiek antolatzaileek onartu beharko dituzte.

**1.4.** Parte-hartzaile guztiek **18:00etatik 18:10era bitartean** egon beharko dute Ibaigane Kultur Etxeko sarreran. **Justifikatu gabeko atzerapenak zuzenean kanporatzea dakar.**



**1.5. Parte-hartzaileek aukera izango dute aldagela erabiltzeko 18:00etatik aurrera.**

## **2. ABESTIEI ETA KOREOGRAFIEI BURUZ**

**2.1.** Koreografieta abestiek edo remixek asiarrak (japoniarrak, txinatarrek, korearrak) soilik izan behar dute, eta euren hizkuntza izan behar dute nagusi. Guztira, ezingo da 4:30 minututik gorakoa izan, eta gutxienez 2:30 minutukoa izan behar da.

**2.2.** Artistarenak ez diren koreografiak ez dira onartuko, baina 15 segundoko tartea emango da talde edo bakarlari bakoitzak koreografian askatasuna izan dezan.

**2.3.** Parte-hartzaileei abestiak aukeratzea errazteko, inskripzioak berretsi ahala zerrenda batean kantuaren eta taldearen izenburua erantsiko da, taldea edo bakarlaria izendatu gabe.

\*Remix bat aukeratzen bada, zerrenda horretan erabilitako abestiak agertuko dira, remix batekoak direla adierazi gabe.

Abestien zerrenda ikusteko lotura: [LOTURA](#)

**2.4.** Armen Araudiari buruzko 137/1993 Errege Dekretuari jarraituta, erabat debekatuta dago partehartzaileek emanaldian suzko armak, metalezkoak eta bestelako objektu sendoak edo imitazioak erakustea, baldin eta beren ezaugarriengatik benetako tresnekin nahasteko arriskua badute. Zalantzarik izanez gero, antolakuntzari galdetu beharko zaio inskripzioen helbide elektronikoaren bidez.

**2.5.** Saioan zehar, debekatuta dago pertsonen eta instalazioen segurtasuna zikintzen, hondatzen edo arriskuan jartzen duten mota guztietako elementuak erabiltzea (material piroteknikoa eta sukoia, ke-sorgailuak, lurzorua hondatzeko moduko produktuak, likidoak, purpurina, konfetiak, lumak, etab.), bai eta agertokitik kanpora objektuak jaurtitzea ere. Ezingo da erabili sare elektrikora, argindar sorgailura edo bestelako konexioetara lotutako aparaturik, efektu bisualak, soinu-efektuak edo bestelakoak sortzeko.

**2.6.** Debekatuta dago agertokitik jendearengana salto egitea, eta ez da onartuko antolakuntzak desagokitzat edo lizuntzat jotzen duen jokabiderik; kasu horretan, antolatzaleek beretzat gordeko dute egokitzen jotzen dituzten neurriak hartzeko eskubidea.

## **3. INSKRIPZIOARI BURUZ**

**3.1.** Lehiaketan izena emateak aldagetak izango ditu aurtengo edizioan. Parte hartzaileek doan eman ahalko dute izena online, izena emateko **formularioa betez**, eta [basauriasandance@gmail.com](mailto:basauriasandance@gmail.com) helbide elektronikora mezua bidaliz, gainera, **koreografiaren bideoa erantsi beharko dute**. Izena emateko datak **bi** epetan banatuko dira; **urriaren 14tik (12:00) azaroaren 2ra (23:59)** izen-emate eta bideo guztiak jasoko dira. **Epaimahaiak azaroaren 10era arte izango du erabakitzeko denbora** eta egun horretatik aurrera finalistekin harremanetan jarriko da.

Izena emateko inprimakia: [LOTURA](#)

Halaber, helbide elektronikora, "**Taldea/bakarlaria x DOKUMENTAZIOA**" gaiarekin batera, hauxe bidali beharko da:

- 1:00 eta 1:30 minutu arteko bideoa izan beharko da, lehiaketan aurkeztuko den abestia dantzatzen, epaimahaiak aurrez aukeratu ahal izateko.
  - o Bideoak abestiaren lehen zatia erakutsi behar du.
  - o Taldeko bideoa izanez gero, taldeko pertsona guztiek agertu behar dute bideoan.
  - o Ez da beharrezkoa lehiaketaren egunean erabiliko den arropa erabiltzea.
  - o Aukeraturiko bideoa bidali ondoren, ezin izango da abestia aldatu.
- Kopia-irudia legezko balioa duen NANA, txartela edo dokumentua (adibidez, familia-liburua) erakusteko, bertan parte-hartzaile bakoitzaren edo taldekide guztien jaiotze-data agertu behar da.

- Argazki bat, 16:9 formatuan eta goi-kalitatean. Hori lehiaketa egunean erabilia izango da, aktuazioa izan bitartean eta atzeko plano moduan.
- 16 urtetik beherako parte-hartzaileen kasuan, gurasoen edo legezko tutorearen baimena eta NANaren argazkia. Eranskinean eredu bat ematen dugu.

**Izena ematea berresteko antolakuntzak mezu elektroniko bat bidaliko du.**

**3.2. Lehiaketan parte hartu ahal izateko, parte-hartzaileek audio eta/edo bideo-fitxategia bidali beharko dute posta elektronikoz ([basauriasandance@gmail.com](mailto:basauriasandance@gmail.com)). Fitxategiak mp3 formatuan egon beharko du, eta VLC softwarearen azken bertsioan funtzionatu beharko du.**

## **4. EPAIMAHAIARI ETA SARIEI BURUZ**

**4.1. Emanaldian alderdi hauek baloratuko dira:**

- Koreografia gauzatzea
- Koreografiaren zailtasuna
- Koordinazioa
- Originaltasuna
- Jantziak eta estetika
- Dantzaren fideltasuna

**4.2. Dantzako profesionalek osatutako epaimahaiak** zuzenean aukeratuko ditu kategoria hauetako sarituak:

- **Taldekako 1. saria: 300 €**
- **Taldekako 2. saria: 200 €**
- **Bakarlariaren 1. saria: 100 €**
- **Bakarlariaren 2. saria: 75 €**

**Horrez gain, saritu horietaz gain, publikoak aukera izango du beste talde bat eta beste bakarlari bat saritzeko. Horiek, hurrenez hurren, 100 eta 25 euroko saria jasoko dute.**

**4.3. Epaimahaiaren erabakia behin betikoa eta apelaezina izango da.**

**4.4. Saridunen iragarpenaren ondoren, saria berehala jasoko dute Bizum bidez, beraz, beharrezkoa izango da aplikazio hori instalatuta izatea eta NANA aurkeztea.**

**4.5. Publikoak, egunean bertan, boto-papera jasoko du eta horiek behin dantzak bukatutakoan eman ahalko ditu. Puntuaketa horien arabera Publikoaren Sariak aterako dira.**

## **5. ANTOLAMENDUARI BURUZ**

**5.1. Oinarri hauetan araututa egon ez arren, antolatzaileek epaimahaiak beste ekimen bat hartzeko eskubidea izango dute lehiaketa arrakastaz aurrera eraman ahal izateko.**

**5.2. Antolatzaileek parte-hartze errespetuzkoa eta dibertigarria sustatu nahi dute, dantzarako grinaz gozatzeko.**

**5.3. Debekatuta dago emanaldiaren bideoan banner edo publizitate-propagandarik erabiltzea , ekitaldiaren antolatzaileen baimenik gabe.**

**5.4. Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar irudi-eskubidea lagatzea.** Parte-hartzaileak, beraz, lehiaketan parte hartzeko irudi-eskubidea lagatzen ditu. Lehiakideak berariaz baimena ematen dio Basauriko Udalari irudi, argazki, bideo, material, grafiko eta halakoak (aurrerantzean, "Irudiak") edo horien zati batzuk, atzemateko, argitaratzeko, erreproduzitzeko eta erabiltzeko, barneko zein kanpoko hainbat hedabidetan (egunkariak, aldizkariak,

telebista-programak, webgunea, sare sozialak). Kontuan hartuta irudi lagatzaileak edo haren ordezkariak Basauriko Udalak antolatutako Basauri Asian Dance Contest 2024 lehiaketaren esparruan parte hartzen duela.

Grabatutako edukia eta lagatzailearen (edo publizitate-arrazoiz zabaldutako) irudiak erabiltzeko baimen hori maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan xedatutakoan jasotzen da. Bertan, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea babesten da.

Baimen hori ez da mugatzen denbora-eremu edo lurralde-eremu jakin batera; beraz, Basauriko Udalak munduko herrialde guztietan erabili ahal izango ditu irudi horiek, edo horien zati bat, betiere izaera sozialarekin eta ez komertzialarekin, inolako muga geografikorik gabe.

Baimen hau doakoa da, eta ez dago konpentsazio ekonomikorik lagatzaile edo haren ordezkariarentzat. Lagatzaileak edo haren ordezkariak berariaz salbuesten du Basauriko Udala erabileraren erantzukizunetik, baldin eta hirugarren batek irudiok erabiltzen baditu.

**5.5.** Lehiaketan izena emateko emandako **datu pertsonalak** konfidentziasunez tratatuko dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 03/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera. **Datuak lehiaketa hau egiteko baino ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarrenei salduko edo lagako.**

**5.6.** Lehiaketan parte hartzeak oinarriak erabat onartzea dakar.

## **HARREMANETARAKO BIDEA:**

Zalantzarik izanez gero, bidali mezu bat [euri.infor@gmail.com](mailto:euri.infor@gmail.com) helbidera.



**BAIMENA**

\_\_\_\_\_ jaun/andreak, adin nagusikoak, NAN /pasaporte  
\_\_\_\_\_ zenbakidunak, \_\_\_\_\_-ren guraso edo tutorea izanik,  
hauxe adierazten dut:

Baimena ematen diot nire semeari/alabari/ardurapeko umeari BASAURI ASIAN DANCE CONTEST 2024 lehiaketan parte hartzeko. Lehiaketa hori abenduaren 14an, larunbata, Basauriko Ibaigane Kultur Etxean izango da eta antolatzailea Basauriko Udalaren gazte zerbitzua (ZirtZart) da.

\_\_\_\_\_ (e)n, 2025eko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)(a)n

Sinatuta: